

Espedientearen kodea: 2025GB140001

Espedientearen gaia: Administrarien lan-poltsak indargabetzea

Titularra: Oñartzungo Udala

DEKRETUA

2018ko azaroaren 13an Tokiko Gobernu Batzordeak administrari lanpostuari dagokion lau plaza betetzeko lehiaketa-oposaketaren bidez betetzeko deialdia eta oinarriak onartu zituen. Arauzko izapide guztiak bukatuta, lau karrerako funtzionario izendatu ziren eta abuztuaren 8ko 2019/1030 Dekretuaren bidez Oñartzungo Udaleko administrarien lan-poltsak onartu ziren, deialdiaren zortzigarren oinarriak eta Oñartzungo Udalaren lan-poltsak kudeatzeko irizpideak xedatutakoari jarraiki.

Oinarrietan ez zen inolako aipamenik egiten lan-poltsen indarraldiaren inguruan.

Aplikagarria den araudiari dagokionez, ez Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginak, ez martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Administrazio Orokorreko Langileak Administrazioan Sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak Betetzeko eta Lanbide Sustapenerako Erregelamendu Orokorrak, ez ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuak, Toki Administrazioako Funtzionarioak Hautatzeko Prozedurak bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituenak, eta ezta 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoak ez dute indarraldirik ezartzen lan-poltsarako edo hautagaien zerrendetarako.

2018ko azaroaren 13an Tokiko Gobernu Batzordeak administrarirako lau lanposturi dagokion plaza betetzeko lehiaketa-oposaketaren bidez betetzeko deialdia eta oinarriak onartu zituen, eta bertan ez zen inolako aipamenik egiten lan-poltsen inguruan. Garai hartan indarrean zeuden langileria ez iraunkorreko lan-poltsak erabiltzeko irizpideen 1.3 zenbakiak aurreikusten zuen lan-poltsak bost urtez erabili ahal izango direla eta modu horietako zerrenda bat baino gehiago baleude, lehenik azkeneko eginikoa erabiliko dela, eta hala ere, iraungitako lan-poltsa erabili ahal izango dela baldin eta ez badago geroagorik.

Ondoren, Udaltzarak 2021eko abenduaren 22an onartu zuen *"Oñartzungo Udalean behin-behineko lan-poltsak kudeatzeko araudia"*. Barne-araudi horrek ez du lan-poltsen indarraldiari buruzko inolako aurreikuspenik jasotzen.

Gauzak horrela, lan-poltsa sortu zenetik sei urte baino gehiago igaro direla eta une honetan Udalak administrari lanpostuari dagozkion hiru plaza betetzeko hautaketa-prozesu bat abian duela ikusita, bidezkoa da lan-poltsa baliogabetzea eta hautaketa-prozesu berriaren ondoriozko lan-poltsa erabiltzea sor daitezkeen administrarien beharrek betetzeko.

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Baliogabetzea abuztuaren 8ko 2019/1030 Dekretuaren bidez onartutako Oñartzungo Udaleko administrarien lan-poltsak, ebazpen hau onartzen denetik aurrera. Administrari lanpostuari dagokion administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalako lau plaza oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren ondorio da poltsa hau. Deialdia eta oinarriak 2018ko azaroaren 13an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrek.

Bigarrena.- Espedientea artxibatzea, eta ebazpen hau argitaratzea iragarki-taulan eta udaleko web orrian.



Hirugarrena.- Administrari lanpostuaren premiei erantzuteko, Udala izapidetzen ari den administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalako hiru plaza oposizio-lehiaketa ireki bidez betetzeko hautaketa-prozesutik eratuko den lan-poltsa erabiliko da, poltsa horrek eraginkortasun juridikoa lortzen duen unetik bertatik.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKUdaa8c1fe-d40c-42f4-9972-7d37fcf54e72

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025GB140001-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)